

euskal elizarantz edo euskal elizarenganantz

Kepa Ezeolaza



Eraiki eta berreraiki hitzak erabiltzen ditudanean ez naiz hitz jokoan aritzen, egiazko elizari buruz hitz egiten dut baizik, sortzen eta desagertzen haietakoetaz. Historiak, sortu eta hil ziren elize-tako adibide asko eskaintzen dizkigu. Hona hemen, mendeetan zehar, adibide esanguratsu batzuk:

1. *Ipar Afrikako Eliza. Kartagoko Zipriano eta Hiponako Agustinena.*
2. *Kapadoziako Eliza, gaurko Turkian.*
3. *Jesuiten erredukzio guaranitarrak, Paraguay, Argentina, Brasilen. 1609tik aurrera,*
4. *Euskal Herrian bertan, zer nolako eliza izan zen Arrianismoaren garaian?*

Esan behar dugu *Euskal Elizaren geroa* esaten dugunean ez dugu esan nahi *beste eliza* eraiki nahi dugula, *bestelako Eliza* baizik.

Maiatzaren hirurogeita zortzian (Mai 68), –han nengoen ni, Parisen–, *irudimena boterera!* oihukatu ohi genuen Bai, irudimena, imajina bihotza, ilusioa, itxaropena.

Haur ginenean *Kristau Ikasbidean Elizak bost tasun edo ezaugarri zituela ikasi genuen: bat, santa, katolikoa, apostolikoa, erromatarra.*

Ez dugu tasun hauek aldatu nahi, ez, hauek dogmatikoak, definituak baitira. Baina esaten dugu Elizak beste eta bestelako tasun edo nolakotasun dituela, *tasun funtzionalak* edo... Eta ez dogmatikoak baina funtzional hauek orain aztertu nahi ditugu: Eliza, Euskal Eliza, *Eliza Herritarra eta Eliza Laiko eta Sekularra*. Lau tasun hauek ezinbestekoak iruditzen zaizkigu.

1. Eliza

Jesukristo presente egiten da, bere izenean bi edo hiru elkar-tzen direnean (Mat. 18 20). Benetan, oso baldintza ximplea, ez da gehiegizko baldintza bete behar Jesus bilerara etortzeko, topakor egiten da bi edo hiru bere izenean biltzen direnean. Ez da behar lehenago kontrol batetik pasatzea, edo

Jesusen izenean jarduten dutenei baimena eskatzea, baizik eta automatikoki gertatzen da. Jesusek berak aurreratu zuena gauzatzen da (Jon 4,21) Ez dute soingaineko exotiko eta apainduak jantzi behar, ez paliopean babesturik ibili, ez dorreko kanpaiak jo, ez aterpe dotoretan otoitz egiteko babiliza batean belaunikaturik ez eliza edo katedral bat eraiki behar.

→ **La Iglesia, la Iglesia Vasca, una Iglesia Popular y una Iglesia Laica y Secular nos parecen imprescindibles.**

Baina nola egin daiteke iraultza hau? Espiritu Santuak eta irudimenak gidatuko gaituzte. *Ardo berriak zagi berrietan sartu behar dira* (Mk2, 22). Oraingoa erantzun berriak sortzeko garaia dugu. Azken urteotan belaunaldi berriek isilean baina irmoki zalantzarik gabe lau haizetara esan dute: horrela, ez dugu nahi. Eta alde egin dute, joan dira, ez itzultzeko. Persiar esaerak dioen bezala. *Herriaren ahotsa Jainkoaren atabala*. Jesusek, beti bezala, bere eskaintza gazteei zuzenduko die (Mk 10, 21) eta gazteek, eskuzabaltasun osoz baiezta erantzungo diote Jesusi. Aldez edo moldez, Izpirituaren arnasak gazteen bihotzak beteko ditu eta era eta asmo berriak sortuko dira. Gaur, erdaraz esaten den bezala, *crear es crear, sinetsi sortzea da, bi, hiru...* eta Emausko bide asko irekiko dira.

2. Euskal Eliza

Euskal Herriko eliza eraberritu honen bigarren tasun, osagarri edo ezaugarria *euskal eliza* izan behar da. Euskararen gaurko egoari buruz Elizaren esparruetan, botila erdi bete edo erdi hutsaren metafora erabil dezakegu. Kezkatuak izateko badira arrazoiak eta baikorrak izateko ere bai. Katekesian eta erlijio hezkuntzan nahiko ondo doa, kristau herriaren hizkuntza bezala, alderantziz, ospakizunetan, mintzaldietan eta beste maila adierazkorretan, behera doala esan behar da, ia ia hil zorian dagoela. Maila folklorikora laburtzen ari da, abesti eztsuak edo topikoak besterik behin eta berriz errepikatuz.

1. *Euskararen aldetik ez dakigu argi eta garbi non gauden.* Nire lekukotasuna emango dut: Euskara eta Eliza mendeetan zehar izenburupean ikerketa sakon eta luze bat egiten ari nahiz. Aitortu behar dut aurreko garaiak aztertu ondoren, oraingo hau zailena egin zaidala. Ez dut lortu jakin zer gertatzen den *Euskal Herriko Elizbarruti bakoitzean*, hau da Baionan, Donostian, Gasteizen, Bilbon, ezta ere erez Iruñean, naiz eta urte Iruñekoan, 1974. urtean



Mendez Asensio eta Larrauri gotzainek primerako arautegi bat eman zuten euskararen erabilpena bultzatzeko, baina, beste askotan bezala, hori paper errea egin zen. Teorikoki arau iraultzaileak ziren, batez ere, euskara erabiltzea edo ez, hiztunen eskubidea dela. Baina esatetik egitera jauzi izugarria delako. Apez askok era eragile askok ez dute inolaz ere kasurik egin, eta orain parrokia askotan euskara behera joan da. *Herria 2000 Eliza aldizkari* honen ale bat artikulu batzuetan ikertu Euskal Herriko elizen euskararen erabilpena ikertu zuen, baina ezinezkoa izan zen sakontasun osoa lortzea. Joera eta jarrera guzti hauek esaten digute euskal subjektua ez dela ez sortu ez finkatu oraindik. Kristau elkarte ofizialetan, parroketan, komentuetan, mugimendu kristauean nabari da euskarak atzera egin duela eta, honen ondorioz, guztiok ulertzen duten hizkuntza erabiltzea. dela

2. Euskal Herriko Gotzainek ez gaituzte bidea erakusten, ez dira inolaz ere, jarraitzeko erredua.
3. Aurretik aurkeztu dudan gainbehera doazen euskararen egoera larritzen, maiz sofisma hutsik erabiltzen dira. Entzun da zenbait lekutan euskararen erabilera murrizteko argudio hau erabiltzen dela: *Gure ospakizunetan Berri ona guztientzako izan behar da, or eliztar askok euskara ez du ulertzen, horrenbestez hobe da denek ulertzen duten hizkuntza erabiltzea.* Edo bestela esanda, *euskarak bereizten du, erdarak, –naiz frantsesa naiz gaztelera–, aldiz, batzen gaitu.*
4. Ematen du diglosia instituzionala onarturik dagoela, legez eta konstituzioaren poderioz..

→ **Jesús, como siempre, dirige su oferta a los jóvenes (Mk 10,21) y los jóvenes le responderán con mucha generosidad. De un modo u otro, el aliento del Espíritu llenará sus corazones y surgirán nuevos modos y proyectos.**

Joera guzti hauek ikusita, herri kontzientzia baten premia eta beharra ondorioztatzen da. Euskal subjektuaren aldetik gaurko egoera ez da oso baikorra, batez ere erantzukizunaren mailak neurtzen baditugu. Baina ez da egin egiteko behar den dena. Delako subjektuak eskubidea du bere sinesmena aitortzeko, arnasteko, handitzeko. Jakin behar du nondik nora doazen Euskal Iturriaren ur gardenak, mistika, poesia... Xalbador maigarriak eskatzen zuen bezala. Eta urrun gaude helburu guzti hauek eskuartzetik .

3. Euskal Eliza herritarra

Eliza berritzatzeko eta bizkortzeko bide honetan hirugarren tasuna eliza herritarra izatea dugu. Euskal Eliza mende askotan zehar bahitua eta isildua egon da. Kanpoko eragin erlijioso eta politikoak hemengo fededunen elkarteetan sartu dira, batez ere elizen buruetan eta elizbarrutietan alor gehienak menperatu eta kontrolatu arte, fededunak eta apezak eragile pasiboak bihurtuz. Egoera honetatik ondoriozta daitekeena nabari da: Euskal Eliza ez da herritarra izango aipatutako botereetatik askatzen ez bada.

→ **Respecto al euskara, los obispos de Euskal Herria no nos enseñan el camino, ni son un modelo a seguir.**

Godoen garaian, Hispaniako Inperioaren eta Elizaren arteko lokarri sakratua zigitatu zen eta, alderantziz iruditu arren, ez da inoiz hautsi. Godoek arrianismoa bost mila eta lauhun eta bederatzian utzi zuten, Toledoko hirugarren Kontzilioan hain zuten. Honen ondoren, laugarren Kontzilioan, hau da sei mila eta hogeita hiruan, *Sisenando* (605-636) erregearen aurrean, kontzilioaren burua Sevillako Isidoro izanik, gotzainek ahots batean zin egotzi zuten formula honekin: *Gutako edonork edo Hispaniako herrietako edozeinek aberriaren eta godoen herriaren egonkortasunaren alde egin zuten zina hautsi edo bortxatuko balu, edo erregearen kontra joko balu, –konjura edo handinahi pertsonalarengatik–, Jainkoaren aurpegiaren aurrean anatema izan dadila.*

Pentsa dezakegu zer-nolako egoeratan aurkitzen ziren euskaldunak garai hartan eta gero, beti godoen aurka agertzen zirenean: jende nequisima / “ezin txarragoa” zela idatzi zuten Germaniako kronistek. Eta zer egin zuten orduko euskaldunek? Bere burujabetasuna defendatu, godoen kontra borrokatuz, hau da, haien ustez, Jainkoaren kontra. Hortik sortu dira hainbeste nahaste eta ezinikusi.

Ohitura berberak edo antzekoak bizirik irauten dute. Nahikoa da galdera hauei ematen zaien erantzunak entzutea nork edo nortzuk izendatzen dituzte gotzainak Euskal Herriko Elizbarrutien buru izateko? Nortzuk ukatzen dituzte Herriari eta Elizari datozkien oinarrizko eskubideak? Zergatik beti eta sistematikoki erantzuna isiltasuna da ?

4. Eliza laiko eta sekularra

Laiko eta *sekular* hitzak baliokideak dira. Aztertzen ari garen tasunik berrienak biak. Ezinbestekoak egiten ari dira eta etorri dira gurekin gelditzeko urte askotarako..

Elizari buruz eta sekulartasuni buruz hitz egiten dugunean bi isurialde ikus daitezke:

1. Bidezkoak dira berez sekulartasuna eta laikotasuna. Zein alorretan agertzen diren laikotasun eta sekulartasuna zerranda luzea egin dezakegu: politikaren mundua, zientzia, artea, biologia, antropologia, medikuntza, fisika kuantikoa, langileria mugimenduak, giza harremanak eta abar.
2. Sekulartasun eta laikotasunaren oinarriak ez doaz teologiaren kontra, askoz gutxiago sinesmenaren kontra, bien eremuak, epistemologiak eta eskumenak ezberdinak baitira. Vatikanoko kontzilioak argi eta garbi utzi zuen bakoitzaren berezitasuna eta autonomia..

→ En tiempo de los Godos, se selló el vínculo entre el imperio de Hispania y la Iglesia y, aunque parezca al revés, no se ha roto nunca.

Ibilbide berri honen funtsezko euskarri eta bektorea itxaropena izan behar dugu. Hori bera klasikoa bihurtu den Mikel Laboaren abestiak esaten du:

**“Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak,
borroka hortan iraungo duten
zuhaitz adaska gazteak”.**

